

FUNTSEZKO JARDUERAK

Beste enpresa baten eskuetan utzi ahal dugun jarduera bakarra garbiketa da, astean behin beste enpresa bateko pertsona bat etorriko da lokala garbitzeko. Gure enpresa guztiz digitala denez, beste jarduera guztiak ezin dira besteen eskuetan utzi.

Proiektu honen atzean gauden lau ekintzaileak arlo ezberdineko ezaguerak daukagu, ondorioz, guztien artean funtsezkoak diren jarduerak bete ahal ditugu:

Lehenengo pertsona bat, alde *komunikatiboaz* arduratuko da, hau da, sare sozialak zuzendu, unibertsitate eta eskoletan hitzaldiak eman, bezeroen zalantzak argitzea, webgunearen publizitatea egin (kartelak, beste enpresen webguneetan...), erabiltzaileak daukaten arazo teknikoak informatikariei komunikatu konpondu dezaten...

Bigarren pertsona bat alde *teknikoaz* arduratuko da, hau da, webgunearen diseinu digitala, antolaketa edo arazo digitalak konpontzea webgunea ondo funtziona dezan.

Hirugarren eta laugarren pertsonak eginkizun oso zabaletaz arduratuko dira, apunteen maketazioa egin (ikus-entzunezko kalitate eta antolaketa bermatuz, baina dokumentuaren eduki teknikoak eta espezializatua erreparatu gabe), irakasle partikularren eskaintzak (CV-ak irakurri, elkarrizketak hitzartzea) pertsona horiek kontratatu ditugun ala ez erabakitzeko, enpresaren kontabilitatea eguneratu, eta orokorrean, enpresaren jarduera nagusia kudeatuko dute (klaseak eta apunteak)...